

Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Nostalgia eta rocka bere tamainan

Bakioko taldeak izenagatik eta diskoaren izenburu eta azalarengatik oso makarra dirudi, baina CDa jarri orduko agerian gelditu da bihotz handiko nostalgikoak direla. Aspaldiko rocka lantzen dute, askotan distortsio gabe, ohituta ez gauden bezala, eta tarteka garagea-ri, 60ko hamarkadari, erreparatzen diote. Zenbait kantutan hastapenetako Sex Museumen kutsua izan arren, Ingalaterra-ko *new wave* hura, The Clash, The Animals –horien bertsio bat barne– eta antzeko koordenadetan mugitzen dira. Diskoa Berako Mic estudioan grabatu dute Maikelekin, baina Jose Lastra izan da prozesu guztiaren atzean, abesti bakoitzak behar duen pulsu edo berotasuna aukeratzen. Ingelese abesten duten arren, hitzak euskarara eta gaztelerara itzuli dituzte; eta amorrazioa eta kritika, biak, tamainan dituzte.



Night city breakers

The Killministers

BAGA BIGA

Iraupena: 41'00"
10,95 euro

THE KILLMINISTERS

«Rock-and-rolla handia izatera bueltatzea, ghettoetatik ateratzea nahi dugu»

Izena lehenengoz entzundakoan Motörhead taldeko abeslariarekin lotu zintuztedan haren abizenaren antzekotasunagatik... Baina, zer daukazue ministroen kontra?

Ministroen kontra denetik dugu, baina hori ez da izenaren jatorria. Motörhead-eko Lemmy Kilmisterengatik jarri genuen izena, baina nahastu ginela ohartu ostean ez genuen aldatu.

Batzuentzako rockeroegiak; eta punk-rockeroentzako melodikoegiak. Horrela sentitzen al zarete, inoren eremuan?

Bai, bete-betean eman duzu. Hala sentitzen gara. Estilo asko eta bariatuak ditugu gustuko, eta badirudi ez daukagula leku finkorik rockaren eszenan. Horretan ere Motörhead modukoak gara:

haiek heavyentzako rockeroak, eta rockeroentzako heavyak ei dira.

Rock-and-rollaren inguruko poseaz paso egiten duzue?

Take me home abestian hitz egiten dugu rock-and-rolla elitista eta kopuru txiki batentzat izatea nahi dutenen gainean. Rocka guretzat ezin da moda edo araez

betetako ezer izan. Guk nahiko genuke rock-and-rolla handia izatera bueltatzea, ghettoetatik ateratzea.

Abestien iraupenak ez dituzue mugatzen; garatu egiten dituzue...

Batzuetan fresko dauden bitartean grabatzea gusta-

tzen zaigu. Bestalde, uste badugu abestiak intentsitate-rik ez duela galtzen nahiz eta luzea izan, hala egiten dugu.

Euskadi Gaztea-ko lehiaketan finalista izateak lagundu dizue?

Ez dut uste oso garrantzitsua izan denik. Gure egorako bultzadaxo bat, behar bada...

Gustura gelditu zarete emailtzarekin?

Oso sinple egin dugu: oinarria guztiok batera jo eta gero, ahotsak, punteoak eta organoa gehitu, nahastu apur



eta listo. Gustura gaude.

Ingelese abesten duzuen arren, kritika gogorak sartu dituzue hitzetan: tratu txarren kontra...

Bai, ingelesez abestu arren ez genuen nahi bakarrik *I love you* esan. Horrek ez gaitu mugatu hitzak idazterako orduan, nahiz eta jende askok hori pentsatu.